
OSTADAR
S.K.T.
GILBERT
ZENON
TRAINER BALL
GILBERT
2018-19

# S.O.S BALONCESTO

No somos alarmistas, sino realistas, la sección de baloncesto puede desaparecer. Toda la estructura generada en estos 8 últimos años con 8 equipos y una escuela de baloncesto, es posible, si no se pone un remedio rápido, que desaparezca este mismo año. No hay un grupo responsable que lo pueda dinamizar; con 4 o 5 personas sería suficiente. Sería triste la desaparición de algo que es tan difícil generar y es que no es un problema económico, simplemente de gestión. Queremos lanzar este S.O.S. a personas que les guste el basket, no hace falta ser experto, simplemente un poco de empatía por el deporte.

No es fácil hacer un resumen de la temporada, con tantos equipos en marcha, los resultados son de todos los colores: tenemos desde campeones de España en el ámbito del deporte inclusivo y adaptado a equipos que han perdido la categoría llenando de sollozos el vestuario.

La cifra de deportistas que movemos semana tras semana empieza a marear, son cerca de 800 las personas que andan por el territorio guipuzcoano llevando el nombre de nuestro Club y el de nuestro pueblo.

Una vez más, tenemos que hablar de la falta de instalaciones para poder acometer toda la oferta deportiva. Por primera vez hemos tenido un grupo entrenando fuera de nuestro municipio, aunque por suerte debemos agradecer a la Real la cesión de sus instalaciones. Por otra parte, son cerca de 45 jóvenes que vuelven a casa de entrenar cerca de las 11 de la noche. La pugna entre los clubs por conseguir horarios dignos tanto en Michelín como en el polideportivo empieza a ser preocupante, por lo que hace falta una solución urgente. A los padres/madres les debería preocupar mucho más esta cuestión y exigir un mayor número de instalaciones. ¿Dónde está el PLAN B? ¿Puede haberlo en un pueblo cuyos terrenos están vendidos a la construcción? Una reflexión sobre esto nos vendría bien a tod@s.

El año que viene, tendremos un nuevo grupo de trabajo dentro del atletismo con dos personas profesionales en dicho deporte, Amaia y Oscar. Un lujo para nosotr@s, como todo el conjunto de entrenadores/ayudantes que invierten su tiempo libre en impulsar que nuestros hij@s, niet@s, amig@s, estén cerca de algo increíble como es el DEPORTE.

Un año más agradecemos a tod@s l@s patrocinadores y al conjunto de padres/madres que aportan su granito de arena para que podamos seguir adelante impulsando el deporte con nuestra gente.

GORA OSTADAR!

## KIROLARI ONENA
## IRAIA IPARRAGIRRE

Ostadarreko kadete taldean hasi zen jokatzen eta lau denboraldietan Ostadarreko kamixeta jantzita jokatu zuen. Ondoren Añorgan jokatu eta 2015-16 denboraldian Errealera salto egin zuenean izugarri poztu ginan zuregatik Iraia. Eta aurreko larunbatean Granadan irabazitako Erregina Koparekin, ezagutzen zaitugunok, Kopa horren zatitxo bat ere irabazi genuela sentitu genuen. Kopa Errealeko neskek irabazi zenuten, baina garaipen horrekin futbolean aritzen diren neska eta emakume guztiek irabazi zuten. Neska gaztetxo askorentzat erreferente zara, Kopakin edo Kopa gabe. Horregatik guztiarengatik saritzen zaitugu.



# S.O.S SASKIBALOIA



Ez gara alarmistak, errealistak baizik, Ostadarreko saskibaloi atala desager daiteke. Azken zortzi urtetan egindako lana -8 saskibaloi talde eta eskola- aurten bertan behera gera daiteke irtenbide azkar bat ez badugu aurkitzen. Ez dago atala dinamizatuko duen arduradunik; laupabosteko lan-talde batekin nahikoa litzateke. Tristea izango litzateke sortzea hain zaila dena desagertuko balitz; neska mordo bat saskibaloian jokatu gabe geratuko lirateke. Eta azaroa ez da ekonomikoa, kudeaketa kontua da. Horregatik, lerro hauetatik saskibaloia gustuko duten herritarrei S.O.S deia egiten diegu; ez da gaian aditua izan behar, kirolarekiko enpatia pixkat soilik.

Urte honetan guztian gertatutakoa laburbiltzea ez da batere erraza, hainbeste talde, hainbeste kirolari izanda; emaitzak kolore guztitakoak izan dira, talde inklusiboko Espainiako txapeldunetatik hasi, kategoria galdu duen taldera arte.

Asteburuetan mugitzen dugun kirolari kopurua zorabiatzeko modukoa da, 800 bat kirolari dira Gipuzkoan barrena gure Kluba eta gure herriaren izena eramanez dabiltzanak.

Berriro ere, kirol eskaintza aurrera atera ahal izateko instalazioen gabezia azpimarratu behar dugu. Batetik, aurten lehen aldiz futbol talde batek denboraldi osoa herritik at entrenatu behar izan du. Erreala eskertu behar dugu instalazioak uzteagatik. Bestetik, 45 bat gaztek hamaikak aldera iristen dira etxera entrenatzetik.
Bai kiroldegian, baita Mitxelinen ere ordutegi duinak lortzeko kluben arteko lehia kezkagarria izaten hasi da. Soluzio azkar bat beharrezkoa da. Kontu honek gurasoak askoz gehiago arduratu beharko lituzke eta instalazio-kopuru handiagoa eskatu. Nun dago B Plana? Zeinen lurrak eraikuntzari salduta dauden herrian egon daiteke? Honi buruzko gogoeta guztioi ondo etorriko litzaiguke. Bitartean, kirola ez da gelditzen, arazoen eta gorabeheren gainetik aurrerantz jarraitzen du, baita gure klubak ere.

Datorren urtean, lantalde berria izango dugu atletismo sailean, Amaia eta Oskar. Guretzat luxua, gure seme-alabek, bilobek, lagunek kirola egin dezaten beren aisialdia eskaintzen duten entrenatzaile eta laguntzaile taldea bezala.

Bukatzeko, kirol egitasmo honek aurrera jarrai dezan laguntzen diguten babesle guztiei, baita modu batera edo bestera laguntzen digun guraso taldeari ere ESKER MILA.

GORA OSTADAR!

## AUZOLAN SARIA
## JOSE ZAPIRAIN AZURMENDI




*Argazkia: Txintxarri*

José jaiotzez añorgatarra izan arren, gure herriarekiko lotura haundia du. Gaztea zala, Jose Aizpurua eta Ciriaco Jimenezekin batera, herriko jubilatuen beharrei erantzungo zien topaleku bat behar zala pentsatu eta lanean hasi ziren 70.hamarkadan: beste herrietako esperientziak ezagutu, egoitza egoki baten bila aritu eta herritar gehiagoren babesa lortu eta han-hemenka ibili ondoren, gaur egun ezagutzen dugun Biyak-Bat jubilatuen egoitza. Hasieran 38 kide baziren ere, egun kolektibo honek 2500 bazkideen babesa du.

Josek badu asmatzaile fazeta ere, baina hori beste baterako utziko dugu. Herrian egindako lan guztiarengatik, esker mila José.

## KORRIKA




*Argazkia: TXINTXARRI*

Aurten ere Ostadar SKT-k Korrikarekin bat egin du. Apirilaren 12an KORRIKA gure herrira iritsi zen eta Ostadarreko Saski eta Futboleko neskek hartu zuten lekukoa; momentu hunkigarria, beti bezala. Korrikako furgonetaren musika entzun orduko, denak urduri espaloitik errepidera salto egin eta bakoitzak ahal zuen zatia egin zuen. Ondoren Okendo plazan euskal jolasak antolatu genituen. Dagoeneko hurrengo Korrikaren zain!

## BOLOS Y TOCA

Los representantes de la sección recorren los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta. En el ámbito local siguen organizando las tiradas de las fiestas de San Pedro, a la que os animamos a participar tanto en bolos como en toca, y el Memorial Joxe Zapirain.

Desde aquí hacemos un llamamiento a aquellas personas que lo deseen se acerquen al bolatoki de las instalaciones de Michelín, prueben, disfrutarán.



## KROSA

Dagoeneko, Korrika Festak aurrea hartu dio Lasarte-Oria Bai! Krosari, 1100 umek parte hartu zuten azkeneko edizioan. Izugarria da ume hauen parte hartzea eta zein ilusioarekin ateratzen diren. Ondo legoke Korrika Festan txikitatik parte hartu dutenek helduen krosean korrika egiten jarrai zezaten.

Lasarte-Oria Bai krosari dagokionez, 888 korrikalarik izena eman zuten eta hauetatik 27 Rollerrak eta 30 Ipar Martxakoak izan ziren. Duela bi urte, lehen aldiz, hogei bat patinatzaile gonbidatu genituen erakusketa modura eta ibilbidea probatzeko. Ondorioz, ibilbidea patinatzaileen proba herrikoiagoa izan zedin, aldaketa batzuk egin genituen lehen hiru kilometroetan eta oso harrera ona izan du. Aurten aipatzekoa da, lehen aldiz eta proba moduan ere, Ipar Martxako 30 pertsona gonbidatu ditugula aurtengo ediziora ibilbidea probatzeko eta hiru modalitateak (korrikalariak, patinatzailek eta ipar martxakoak) nola uztartzen ziren ikusteko. Balorazioa positiboa izan danez, hurrengo edizioan I.Ipar Martxarako izen-emateak zabalduko ditugu. Aurreratu digute, agian Gironako taldetxo bat etorriko dela parte hartzera. Harrobia bermatuta daukagu, baina Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoia antolatzen jarraitzeko arnas berria gustura jasoko genuke. Inor animatzen da?



La temporada finaliza con los jugadores Beltzak volcados en crecer; crecer como jugadores, crecer físicamente, crecer como personas.

El grupo **Sub 10** que ha probado este año lo que es una competición y lo han hecho bien; han demostrado mucha calidad en su juego de aprendizaje, y lo más importante, se han divertido aprendiendo.

Los **Sub 12,** ya más rodados, desarrollan el juego a la mano, el placaje y la continuidad de los apoyos en ataque. Calidad asegurada en este grupo que desborda ilusión y ganas para poder cumplir la edad necesaria para jugar en la liga de Guipúzcoa.

El colofón de las **escuelas** se ve reflejado en el torneo de La Concha, una competición donde más de 600 rugbiers de todas partes culminan su temporada con el típico baño en el mar después del torneo.

**Sub 14**, crecimiento puro; el juego capta enseguida la atención por los pases, los placajes, las carreras y el trabajo de la melé donde ya se ven maneras a los chavales. En la liga guipuzcoana, debido a su gran nivel, vienen a jugar equipos de Vitoria, Pamplona e incluso de La Rioja, ya que estos clubs prefieren la calidad con la que se juega aquí.

**Sub 16,** cosa seria. Da gusto verles jugar. Este año han quedado en 4º lugar en la muy competida Euskal Liga.

**Sub 18**, categoría donde se muestra un rugby talentoso y se ven las cualidades del grupo, antes de dar el paso a la categoría Senior. Este año, tras una muy dura competición



Argazkia:Beltzak

han logrado la tercera plaza de la Euskal liga y han participado en el Torneo de España.
Y en los Sub 18, tenemos a **Alex Saleta,** primer jugador Beltza que ha viajado con la selección estatal Sub 18 para competir en el Europeo en Kaliningrado, Rusia, competición que se llevó a cabo entre el 13 y el 20 de Abril.

**Memorial Aitor Uranga.**

Este año, traemos a las chicas del Pinguinos Rugby de Burgos, para el partido contra las neskak del Hernani y vienen además del Atlético San Sebastian Senior masculino, Los Lobos de Segovia que se enfrentaran en un triangular a los Beltzak Lasarteorians. Se prevé que será un gran evento al que ha confirmado su asistencia el Vicepresidente de la Federacion Española de Rugby además de cantidad de amigos y aficionados.



## ROKODROMOA MITXELINEN!

Lasarte-Oriako eskalatzaileentzat berri on bat izandu dugu, azkenik rokodromo indoor batean eskalatu dezakezue. Lehen rokodromoaren gunea - Loidibarreneko frontoiaren atzeko aldea- ez zen egokiena, hezetasun handia zegoelako, ia beti zikina…. Egoera hau izanik, rokodromoa leku itxi batera aldatzeko denbora luzez egon gara.  Azkenean, bilera askoren ondoren, rokodromoa Mitxelingo tenis kantxetara eramatea lortu dugu.



Gutxi batzuk erabiltzen hasiak zarete. Ea eskalatzaileak animatzen zareten hau erabiltzera eta denon artean gunearen erabilpen egoki bat egiten dugun.

Jakin, mendian federatuak zaudetenak kiroldegiko banako bazkide kuotan beherapena duzuela, baina bakarrik rokodromoa erabili ahal izango duzue.

## TENIS



Aurtengo denboraldia bukatzear dago eta kontentu egoteko arrazoiak ditugula esan dezakegu: batetik, zortzi eta hamasei urte bitarteko tenislariak ilusioz eta seriotasunez ahalegindu direlako tenisaren sekretuak bereganatzen; bestetik, ikasturte honetan lortu ditugun aurrerapenak aipagarriak direlako; eta azkenik, helduen taldearekin jarraitzen dugulako. Honengatik guztiarengatik eta ohiturei eutsiz, ekainean denboraldiari amaiera emango diogu Tenis Jaiarekin. Bertan, tenis familiako kide guztiak elkartuko gara azken raketazoak jotzeko. Gogoratu, lehen urratsak eman ala sakondu nahi duenarentzat Tenis Eskolako ateak zabalik daudela!

## TXIRRINDULARITZA



Ostadarreko zikloturistek martxoan ekin diote denboraldiari Itsasondoko irteerarekin eta urriaren 28an amaituko dute Getariko San Prudentzion. Tartean Altzora, Mendarora, Otzaurtera, Leitzara... Guztira 2462 km egingo dituzte. Igande goizetan zaharren egoitzatik ateratzen dira. Beraz, zikloturismoa gustuko baduzue bizikleta hartu eta Ostadarreko taldearekin ateratzera anima zaitezte.
Aupa ekipo!

## PORRA




Aurten berriz ere Itzuliako Porrari heldu diogu eta askok parte hartu duzue. Orain berriz, Giroan bete-betean sartuta gaude eta bukatu ez den arren, jakin sari-banaketa ekainaren 7an, 19:00etan puntu gehien lortzen duen tabernan egingo dugula.

Hurrengo Porra, TOURrekoa izango da, uztailaren 6ean hasi eta 28an amaituko dena; boletoak eta txirrindularien zerrendak San Pedro jaien ostean ohiko tabernetan utziko ditugu. Porran parte hartzen duzuen guztioi eta nola ez tabernariei mila esker. Beti bezala, informazio guztia gure web gunean arkituko duzue: sailkapenak, besteen boletoak, etab.

# 1,2,3 ta OS-TA-DAR! Irabazi arte... LA-SAR-TE!!!




















## KIROL EGOKITUA ETA INKLUSIBOA




Denboraldi honetan kirol emaitza oso onak izan ditugu taldean, baina gure atalaren helburu garrantzitsuena ez da hori. Dena den, emaitza hauei esker, aukera bikainak izan ditugu komunikabideetan kirol egokituari buruz hitz egiteko.

Gure kirolariak beraiek ari dira izaten kirol egokituak duen garrantziaren bozgoragailurik hoberena. Heuren bizipenetatik bizitzan gertatzen den bezala, gora behera ezberdinak izaten ditugu: pozak, ilusioak, kezkak, erronkak, esfortzua… eta bizitza bera. Bizitza beste pertsona guztiak bezala. Baina 2019 urtea ere aurrera doa eta oraindik badakigu pertsona guztiek ez dituztela kirolean edo eta jarduera fisikoan parte hartzeko aukerak. Horregatik, gure kirol atal honetatik **A**berastasuna eskaintzen diogu gizarteari, ikuspegi ezberdin bat eskainiz; **L**ana egiten dugu gure ametsak betetzeko beste guztiek bezela; **T**aldekideak gure bizitzaren parte ditugu giza harremanak lantzen; **U**lertzen ditugu aniztasuneko kolore guztiak; **N**aturaltasunarekin bizitzen gara natural begiratzen gaituztenekin eta **A**ukerak ematen ditugu aukerak ematen dizkigutenei.



Kirol egokitua denontzat delako, Maite Zaitugu Ostadar SKT inklusioa ataleko kideok.

## IPAR MARTXA

Aze martxa Ipar Martxa taldeak duena! Pazko Astean taldekide batzuk Gironan izan dira bastoiekin ibilaldiak egiten, hilean behin Euskal Herriko txoko batera irteera bat egiten dute; Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian, San Silvestre Krosean eta Aspanogiko martxetan parte hartu dute eta asteazkeneko zitekeen jarraitzen dute ere, nahiz eta eguraldi txarra egin. Horretaz gain, ikastaroak, eta herrian ospatzen diren ekimenetan parte hartzeko ere beti prest, Euskararen Maratoia dala, Korrika dala, sentsibilizazio kanpaina dala, Gure Esku dala...




Benetan, izugarria herrian egiten ari zareten lana. Aupa zuek!







**2019-2020 Denboraldirako izen ematea**

Ekainaren 10etik 21era, 18:00etatik 20:00etara Ostadarreko bulegoan. 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotako umeentzat.

**Inscripción para la temporada 2019-20**

Del 10 al 21 de junio, de 18:00 a 20:00 de la tarde en la oficina de Ostadar, para les nacides en 2009-2010-2011.

# AUPA





*Alebina B*



*Alebina A*



*Errendimenduzko Alebina*



*Lehenengo Infantila B*



*Lehenengo Infantila A*



*Infantil Txikia*



*Ohorezko Infantila*



*Lehenengo Kadetea B*

# OSTADAR!!!!



Lehenengo Kadetea A



Ohorezko Kadetea



Lehenengo Jubenila




Ohorezko Jubenila



Lehenengo Erregionala




Preferentea



Infantilak



Erregionaleko Ohorezko Dibisioa

**EGITARAUA**

# 2018-2019 DENBORALDI AMAIERAKO FESTA
# MAIATZAREN 25EAN
# ORIARTE BHI (REM)

**11:30.** Jolas inklusiboak
**12:30.** Sari-banaketa:
Auzolan saria: Jose Zapirain Azurmendi
Kirolari onena: Iraia Iparragirre
Ostadarreko jokalari jatorrenei sariak
**13:00.** Tercer Tiempo/Hirugarren denbora:
Beltzak errugbi taldeko kideek pintxo goxoak prestatuko dituzte jokuetan parte hartu duzuen guztientzat.



Urtero bezala, denboraldiari amaiera emateko festa batekin bukatuko dugu. Aurten, maiatzaren 25ean ospatuko dugu Oriarte BHI-ko jolaslekuan. Jolas inklusiboak prestatuko ditugu, ondoren sari-banaketari ekingo diogu eta bukatzeko Beltzak Errugbi taldeko lagunek jokuetan parte hartzen dutenentzat hirugarren denbora goxo bat prestatuko dute.

Bertan ikusiko dugu!

Como cada año, despediremos la temporada con una fiesta. Este año haremos la celebración en el patio del Instituto Oriarte, el 25 de mayo. Empezaremos con unos juegos inclusibos, a continuación la entrega de premios y para finalizar los amigos de Beltzak Errugbi Taldea prepararan el tercer tiempo para l@s que participeis en los juegos.

Nos vemos en la fiesta!

www.ostadarskt.eus ostadarskt ostadarskt

**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari, TXEMA VALLESi eta baita gure babesle guztiei ere, denboraldi honetan eskainitako laguntzarengatik.